

Spoilerrak behar ditugu



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ZUZENTZAILEA

PAULA ESTÉVEZ

Etxean itxita hainbeste ordu motel igaro beharraren beharraz, azken asteetan askori zail egin zaigu ez ikusi egiten segitzea etxeko armairu eta apaletako kaosari: oroz gaindiko produktibitatearen gizarte honetan bekatu denez egonean egotea, eta alferputz eta kulpante sentitzen garenez minutu batzuk deskantsu ederrean emateagatik, prokrastinazioaren mamuari uxa-uxa egin eta Marie Kondoren espirituari amore eman diogu askok azkenean. Nik neuk, Aste Santuan.

Han nenbilen, zintzo eta santu, liburu-apaletan usnaka eta hautsarengatik usinka, eta hara non aurkitu nuen zoko batean Boccaccioren *Dekameron*-ren gaztelaniazko antologia bat, bere garaian geroko utzia eta azkenerako atzendua. Eta, urteko asterik erlijio-soenean egonik, liburu *bekatuzko* hari-ke ekiteko gogoa piztu niri; are gehiago Alianza argitaletxearen edizioaren sar-hitza leitu ondoren, antologiaren apailatzaile Gustavo Martín Garzorena: “1348. urte ingurua da, eta izurri-epidemia lazarri batek porrokatua du Florentziako hiria. Hainbeste dira hiltzen, ia asterik ez baitago guztiei lur emateko. Hobi komunak zabaldu dituzte, hilkutxa bakoitzean zenbait gorpu batera sartu,

erlijio-zeremoniak alfer-alferrik sarritu, eta horroreak hartu du bai kalea eta bai jendearen ohiko bizimodua”.

Gordinaren gordinez, Izurri Beltz deitu zitzaion milioika pertsona hil zituen gaitz hari, zeina itsasontzietako arratoi beltzek zabaldu ei baitzuten hara-hona. Gure pandemia hau, berriz, saguzar batetik sortu eta oinez, trenez, hegazkinez zabaldu dugu. XIV. mendeko izurri hari *beltz* esaten diogun bezala, zer koloretakoa ote da XXI. mendeko hau? Izurri Zuria agian: ez FFP2 eta halako maskaren kolorea delako soilik, ez antisepsia-aren sinboloa delako soilik, baizik agian, batez ere, munduko agintari askok zurikeriaz ezkutatu dutelako egoeraren larria eta neurri onartezin ugari zuritu dituztelako ekonomiaren eta bestelako interesen izenean; eta, zergatik ez airtortu, herritar asko ere zuri-zuri aritu garelako esaten ondo gaudela, yogari eta Netflixi esker lasai gaudela: Chestertonek aipatzen zuen “pesimismoaren kartzela” horretatik ihes egiteko modu zilegi bat, inondik ere.

*Dekameron*a-k, ordea, zurikeria ez baizik bizipoza dakar orriz orri, tituluz titulu. Eta hain zuzen titulu horiek beste zerbaitegatik ere ematen dute zer pentsatua, zeren, garai bateko beste

hainbat obratan bezalaxe, atalen izenburuak ez baitira labor iradokitzaileak, baizik luze orokontalariak. Adibidez: “Monferratoko markesak, oilo-oturretza baten eta hitz burutsu batzuen bidez, Frantziako erregearen amodio zorroa galgatu zueneko”, edo “Melkisedek judua, hiru eraztunen ipuin bat kontatuz, Saladinen tranpa arriskutsuari itzuri zitzaioneko”. *Spoiler* edo *izorrikiz* jositako izenburuak, horra. Ipuin haietan inportanteena ez baitzen intriga, zer gertatuko zen asmatzea, baizik kontatzea, kontraera, kontu-kontari denbora elkarrekin pasatzea, ikastea, entretenitzea.

Gaur egun, alderantziz: oro har ez dugu spoilerrik onartzen ez ikus-entzuzkoetan, ez literaturan. Izenburuek iradoki baino ez dute egin behar, eta sinopsi, trailer eta abarrek amu huts izan behar dute, fikzio-lanetan bederen. Errealitatean, baina, ziurgabetasunak bizi gaitu oraintxe, inoiz baino gehiago. “Hau dena bukatzen denean...” esan eta esan gabiltza, baina nola eta noiz bukatuko den ez jakiteak arduratzen gaitu, maiz, pandemiak berak baino gehiago. Spoilerrak, spoiler itxaropentsuak behar ditugu Izurri Zuriaren garaiotan. ●